

302. alea - 2025eko urtarrila
Debako herri aldizkaria

Zuhaitza
Muzika-deba
euskara
elkartea

Berriketan



DEBRASS BAND

Ohiko musika moldeei, haize berriak



ARENA BAR

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan



943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa



Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



IZERBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENEXEA



943 830 424 - 653 921 712



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 302

2025eko urtarrila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA



10 ALBISTEAK
Lander Aranberri eta
Iñaki Sagarna ikerlari
debarrek jaso dute Tene
Mujika beka



12 ERREPORTAJEA
Ezingo da 5 MW-eko
potentzia izango lukeen
aerosorgailurik ezarri
Itziarren



16 ELKARRIZKETA
Lehen diskoa kaleratu
duen Debrass Band
taldeko kideekin
solasean



21 ELKARRIZKETA
Deban emango duen
kontzertua eta beste
hainbat kontu hipzide
Petti musikariarekin



27 ALBISTEAK
Ismail Chkhicckekh eta
Oihana Kortazar
nagusitu dira Debako
XI. Herri Krosean



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!

Berriketan



berriketan.eus

Zuhatzza euskara
elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzza Euskara Elkarte
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behea. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzza.com

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta

eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazi-takoan erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Gutunak



Gerraren eta faxismoaren aurka, gazte langileok lehen lerrora

Krisi kapitalistaren testuinguruan, egoera larria da gazte langileontzat; emantzipatzeko ezintasuna, aisialdirako aukera murriztak, kontrol sozial etengabea... Gainera, testuinguru honetan, gerra hotsak eta faxismo berri bat hazten ari dira Europan zehar.

Gerra urrun dagoen zer bait dela pentsa genezakeen arren, balak ate-joka ditugu. Mendebaldeko agintariek gerraren aldeko apustua egin dute: Polonian, ikastetxeetan tirokatzen ikasteko ikasgaiak jarriko dituzte; Frantzia, soldaduska martxan jartzeko ideia dute; eta ezin aipatu gabe utzi Espainiako gobernuaren aurrekontu militarra gora doala etengabe.

Testuinguru beliko honetan, ezker instituzionalaren ezintasunaz eta gizartearen pobretzeaz baliatuta, faxismo berri bat ari da zabaltzen Europan zehar. Instituzioetan gero eta indar handiagoa dute alderdi ultraeskuindarrak, eta instituzioen bitartez neurri totalitarioak eta zapaltzaileak bultzatzen dituzte. Kale mailan, diskurtso faxista, arrazista eta erreakzionarioak normalizatzen eta zabaltzen ari dira, hauek eraso fisikoei eta antolatuei bidea irekitzen dietelarik. Gainera, sare sozialetan milaka harpidedun eta jarraitzaile dituzten figurek diskurtso erreakzionarioak zabaltzen dituzte, eta belaunaldi gazteenengan influentzia handia dute. Eta hau guztia Euskal Herrira ere iritsi da.

Testuinguru honetan, GKSsk manifestazioak deitu zituen pasa den urtarrilaren 25ean Bilbon eta Iruñean, gerraren eta faxismoaren aurka. Gizartearen zentzua eskuinerantz doan bitartean, ezinbestekoa da horren aurka mobilizatzea eta horren aurrean milaka pertsona egongo garela erakustea. Beraz, lanean jarraitu behar dugu, hauei leku txikiena ere ez uzteko.

Ekaitz Zubimendi GKSko kidea

Mila, mila esker!

100 mila kafe izeneko ekimena abiatu zuen EH Bilduk duela hamar urte. Proiektu politikoa azaltzea eta eztabaidatzea zen helburua, aldi berean komunitate giroa zainduz. "Adarra jotzen" genion orduan, bere omenez antolatutako ekimena zela esanez. Orain, pentsatzen hasita, bere ibilbidea irudikatzen duen ekimena izan zitekeen.

Irakurri ditugu Deban eta Euskal Herrian utzitako arrastoaren aitortzak. Herrigintzan etengabe aritu da lanean: feminismoa, euskara, udalgintza, kultura... sarea ehuntzen, gelditu gabe. Egunerokoan lantalde berriak sortzeko ekinean, herriko ekimenetan boluntario, komunitatea(k) sortzen eta zaintzen.

Aldarri handiak nagusi izan diren Euskal Herrian, eguneroko pauso txikien garrantzia transmititu digu. Udaleko Euskara zinegotzi izan zen garaian, esaterako, eraldaketarako aukera izan zuten esku artean dugun aldizkariak eta Zuhatza elkarteak. Hausnarketa eta eztabaida sakonen ondotik, soldatapeko langileak izatea ahalbidetu zuen aurrekontua proposatu, eztabaidatu eta lortu zuen udal gobernuan. Garai berean sartu zen Deba UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean. UEMAkide izendatu gintuzten batzarra Deban egin zen, eta herriko eragile sozialak eta kulturalak "nahastu" zituen egun osoko festa hartan parte har zezaten.

Gutako bakoitzak Milarekin hartutako kafeen oroitzapena izango du aurrerantz. Herria eta gure komunitatea egunero osatzeko beharrezko sarearen kide egin gaitu, lanean jarri gaitu, parte egin gaitu.

Honengatik guztiagatik, azken agurra eskainiko diogu datorren otsailaren 2an, 12:00etan, Aldats pilotalekuan egingo den ekitaldian. Utzitako arrastoak hor jarraituko du, transmitutakoarekin Herria egiten jarrai dezagun!

Debako ezker abertzalea



Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena



636 135 008 • www.taxideba.eus



INMA ALBERDI

Tantaz tanta gehitu

Gipuzkoako odol emaleek gizartearen zerbitzura egindako 60 urteak ospatu dituzte Donostian, gure ongizatearentzat hain beharrezkoa den boluntariora-lana aitortuz. Deban, azken urtean, 315 odol poltsa lortu eta aurreikuspen guztiak bete direla esanez *whatsapp* bat jaso dut. Poztekoa! Baina kopuruak gorabeherak izaten ditu; gehiago dira urtero galtzen diren emaleak irabazten direnak baino, belaunaldi aldaketagatik, eta odol stocka egoera idealaren azpitik dago. Odol emaleen beharraz ohartarazten gaituzte sarritan eta herritarren erantzun bikainari esker pixkanaka hobetzen dira erreserbak. Gizartea beti izan da solidarioa, baina errelebo falta dago. Ekintza hau gehien barneratu dugunak adinekoak gara eta komeni da jende gazteari behar hau azaltzea eta haiek kontzientzia hartzea, ohitura bat sortu nahi da eta.

Ohiturak aldatzen doaz etengabe, eta horietako bat da boluntarioen falta hainbat ekitaldi eta lanetarako. Hain premiazkoa dugun odolari ere eragin dio moda berri honek; badirudi musu-truk hitza ez dagoela oso modan. Ezinbestekoa da gazteak honen garrantziaz jabetzea eta horiek ohikotasunez odola ematea, egonkortasuna lortzeko. Guztia egina dagoela pentsatu arren, ez du inork egiten, norberak baizik; ez dezagun besteen gain utzi guk egin dezakeguna.

Bitxikeria gisa, emaleen elkarteek jendea erakartzeko egin dutena ikusteko bi adibide: Araban, abuztuan, goizetara pasa zuten herrietan emandako zerbitzua; Bartzelonan, aldiz, odola eman ondoren, ogitarte-koaren orde, ospe handiko sukaldariak prestatutako jana eman zieten.

Odola ematea denon eskubidea ez ezik, denon erantzukizuna ere bada. Saia gaitezen, norbera beharrea aurki daitekeela jakinda. Ematen ikasi, ostera jasotzeko.

"Guztia egina dagoela pentsatu arren, ez du inork egiten, norberak baizik; ez dezagun besteen gain utzi guk egin dezakeguna"

Informatika
Tresneria
informatikoa



Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - beheña | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com



atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com



ieraenea
ekidenda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 55 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Urtebetez liburutegia denontzat eskatzen

LIBURUTEGIA DENONTZAT TALDEA

Urtebete pasatxoko ibilbidea egin du Liburutegia Denontzat Taldeak. Haur eta gazteen liburutegia, herritarren zerbitzu bat, hobetzeko asmoz elkartu ginen. Herritar guztiek, adin diskriminaziorik gabe, liburutegian egoteko aukera berdina izateko eskaera jarri genuen mahai gainean.

Taldeko kideak liburutegiko erabiltzaileak gara —helduen eta haurren liburutegikoak—, eta haurren liburutegiak funtzio garrantzitsuak betetzen dituelakoan gaude: irakurzaletasuna bultzatzea, familiak haurrekin egoteko espazio izatea, bai eta gaztetzonen elkargune izatea ere.

Urte luzez indarrean dagoen arautegia aldatzea da taldearen lehentasuna, haurrek eta beren zaintzaileek, gainontzeko erabiltzaileek bezala, liburutegian egoteko aukera izan dezaten. Horregatik, haurren liburutegiko erabiltzaileen beharrak eta eskubideak aintzat hartzeko eskatu genion udalari iazko otsailean.

Sinadura bilketa ere egin genuen udaberrian, gure aldarrikapenek herrian babes zabala dutela adierazteko. Eta, hainbat eragileren babesaz gain, 500 sinadura bildu genituen.

Gainera, haurrei eta familiei zuzendutako hainbat ekimen antolatu ditu taldeak; *Kale liburutegia* izena erabili dugu ekintza horiek izendatzeko. Aurrena, Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, ipuin kontaketa eta taldearen logoaren horma-irudia egin genituen; tximeleta ugari margotu eta moztu zituzten umeek, ondoren horma-irudian itsasteko.

Ekainean, txikienek orri-markatzaileen tailerrez eta audioipuinaz gozatu zuten, eta elkartasun argazki jendetsua atera genuen zumardian. Udazkenean, berriz, Liburutegi Nazioarteko Eguna aintzat hartuta, mikroipuin erakusketa eta irakurketa antolatu genuen helduentzat eta gazteentzat, Plaza Zaharrean. Eta txikienez ipuin kontaketa eta ilustrazio-tailerra izan ziren. *Kale liburutegia* sormenerako gune ere izan zen.

Azaroan, Euskeraz Bagera egitasmoaren baitan, ipuinetako protagonistei egin genien tokia: *photocall*-ak margotzeaz eta argazkiak ateratzeaz gain, haurrek esku-



"Topaketa arrakastatsuak eta aberasgarriak izan dira, eta zenbait gabeziaren erakusle, era berean"

ko txotxongiloak egin zituzten. Eta urteari amaiera emateko, umeek Olentzerorentzat eta Mari Domingirentzat gutunak idatzi eta margotu zituzten. "Liburutegira nahi dugunean joan ahal izatea" izan zen eskaeretako bat.

Topaketa arrakastatsuak eta aberasgarriak izan dira, eta zenbait gabeziaren erakusle, era berean; baieztatu baita umeek eta beren zaintzaileek liburu artean murgiltzeko espazioa behar dutela. Gainera, liburutegiak umeentzat antolaturiko ekintzen edo tailerren hutsuneaz jabetu gara, eta horien premia ere badugu herrian.

Urte berria, aldarrikapen bera

Urte berrian, liburutegia denontzat eskatzen eta elkarbizitza aldarrikatzen jarraituko dugu. Era berean, *Kale liburutegia* sortzen segituko dugu: adin guztietako haurrak eta familiak elkartzen (irakurtzeko, margotzeko, ipuinak entzuteko...), taldearen aldarrikapenekin bat egiten, eta Ostolaza liburutegiak etorkizunean, agian, beteko dizkigun beharrak asetzen nolabait.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuegu taldearen aldarrikapenekin bat egin duzuen guztioi, eta aurrerantzean antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.



IGOR LARRAÑAGA

Olentzero gurera ez da etortzen

Duela 10 urte inguruko argazkiei arretaz begiratzen nabilela, egiten genituen ekintzak etortzen zaizkit gogora. Irakurlea hobeto kokatzeko, haur jaio berriak genituen garaikoak.

Gogoan dudak ekintzetako bat Gabon garaian Mungiara joan ginenekoa da. Kuadrilla mailan espedizioa antolatu eta inoiz egon gabe nintzen eta berriro itzuli ez naizen herrira joan ginen. Ordubete inguruko bidaia, zertarako eta Olentzero gurtzen duten parke tematikoa ikusteko. Ilara luzeak eta hotz handia pasa genuen oroitzapen idorra baino ez daukat.

Hori gutxi ez eta hurrengo urtean berriro ere kuadrilla planean Legazpiraino joan ginen. Han ere jainkoaren semeari itzal egiten dion ikazkina agurtzera. Legazpi esan dut, baina kanpoaldean den jatetxe batean izan ginen zain, denbora luzez; gurasoz, ume txikiz eta *kotxe-sillaz* toperaino beteta zegoen eraikinean. Bertan zen zarata eta espazio falta ohitura pelegrinazio masifikatu bilakatu zen egiaztapena baino ez zen.

Hirugarren urtean beste norabait joan aurretik, Gabonen eta Olentzeroren kontuari buelta bat eman behar geniola erabaki genuen etxean; gure buruari umeen ilusioaren aitzakian edozer egitea zilegi ote den galdezka; maldan behera doan elur bola bezala, urtetik urtera handitzen joan den gezurra bezala, eta gezur horren konplize izaten ezin genuela jarraitu iritzieta.

Zoriontasunez oroitzen dut hartu genuen erabakia, ez hartu genuen erabakiarengatik, egiten genuen hori ezbaian jarri eta guk gure bidea egitea adostu genuelako baizik.

"Gabonen eta Olentzeroren kontuari buelta bat eman behar geniola erabaki genuen etxean; gure buruari umeen ilusioaren aitzakian edozer egitea zilegi ote den galdezka"



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Podologia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista

Leisundi, 14
943 19 24 42
sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



1937ko urtarrilaren 20an

San Sebastianen omenezko prozesioa

Indalecio Ojanguren eibartarrak 1937ko urtarrilaren 20an, azken Gerra Zibilean, egindako argazkia duzue goikoa. Irudiak XIX. mende amaierako edo XX. mende hasierako margolari kostunbristaren batek egindako (Elias Salaverriak, adibidez) koadro baten antza du, eta protagonistak San Sebastianen irudia prozesioan eramaten agertzen dira, Elorriaga (*Elorrixa*) auzoan. Oso deigarria da bertaratuen jarrera serioa eta batzuek kandelak dituztela ikus genezake. Gizonek zabaldu eta emakumeek ixten dute prozesioa; ohikoa zen lehen, eta hala izaten jarraitzen du oraindik ere.

Alex Turrillas Aranzeta



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)



K21
 KALITATEA
 Erroren kopurua Nº 2.105.1049
 NIVEL 2



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



GOIZANE AIZPURUA

Deklaratzekorik ez

Hitz hauek idazteko garaia iristen denean, aurrekoetan zeri buruz idatzi izan dudan begiratzea gustuko dut. Azken urteetan, urte berria estreinatzeke alean idaztea egokitu izan zait. Horrek igaro den urtearen halako errepasso edo atzera begirakoa egitera narama. Edo, aldiz, aurrez dudan urteari begira jarri eta eremu kuantiko huts batean urte berrirako esaldiak bertan txertatzera. Hala egin nuen iaz eta hauxe deklaratu nuen: "Itsasoak ezabatuko du oinutsik emandako pauso bakoitza, atzera egin ez dezagun".

Oraingoan ere, berdin egin nezake eta aurreko zein estreinatu berria den urteari buruzko "zerbait deklaratzekorik?" galderari "deklaratzekorik ez" erantzun.

Dekretuzko esaldia dirudi. *Ezeri* buruz, *ezer* aitortzeko ez banu bezala. Munduaren izugarrikeriari eta edertasunari buruz *ezer* azaltzekorik ez banu bezala. Datorren urtearengandik *ezer* esperoko ez banu bezala, edo iragan denak *ezer* berririk eskaini izan ez balit bezala. Esate baterako, orain etxea ere baden herrialde horretara itzulera, distantziak banatzen duen harreman bateko beste ertzarekin berriro elkartzea, entzuteko ahalmena pazientziak laguntzea, "ulertzen zaitut" inoiz baino gehiagotan entzun eta esatea, sabeleko algara fabrika berriz martxan jartzea, musikak lotutako begirada distiratsudun ahots eta xamurtasuneko erritmodun bidelagun berriak topatzea, eta galderak. Zugana hurbiltzeko egingo nizkizukeen mila eta bat galdera.

Ezer, zerbait badelako. *Ezer ere ez*, hutsa, ordea. Eta agian, irakurri berri duzun testu hau irakurle zaren horri deklarazio bat besterik ez da.

"Berdin egin nezake eta aurreko zein estreinatu berria den urteari buruzko 'zerbait deklaratzekorik?' galderari 'deklaratzekorik ez' erantzun"

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 beheak - 31 PK.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

k
kutxabank



SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Lander Aranberrik eta Iñaki Sagarnak jaso dute Tene Mujika beka

Aspaldiko partez, bertoko bi herritarrek irabazi dute Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak saritzen dituen Tene Mujika beka. Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako bekaren azken deialdira aurkeztutako proiektuen artean, hain zuzen, Lander Aranberriena eta Iñaki Sagarnarena saritzea erabaki du Kristina Berasainek, Eneko Bidegainek eta Cira Crespok osatutako epaimahaiak. "Frankismoarekiko euskal erresistentziak Israel-Palestina auziaren aurrean izandako bilakaera" aztertuko dute bi ikerlariek. Urtebeteko epea eta 8.000 euro izango dituzte lana burutzeko, gero liburu gisa argitara dadin.

Beka deialdi batera elkarrekin aurkezten diren lehen aldia izanik, "ondo baino hobeto" irten zaiela aitortu dute Tene Mujika bekaren irabazleek. Zuzenbidean graduatua da Aranberri (Deba, 1996), eta abokatutzan eta nazioarteko ikasketetan masterduna; Sagarna (Deba, 1995), berriz, Historian graduatua eta masterduna da. Elkarrekin onduko dute *Eretz-Herria: euskal erresistentziaren Israel-Palestina auziarekiko begirada 1950-1980 urteen artean* proiektua.

Beka jaso berritan, pozik al zaudete?

Lander Aranberri: Sorpresa galanta izan da, egia esan. Sariketaren zerrandan, itzal handiko izen-abizenak eta lanak daude: Imanol Murua Uriaren *Loiolako Hegiak*, Kattalin Minerren *Moio*. *Gordetzea ezinezkoa zen*, Estitxu Fernandezek eta Erika Lagomaren *Mama*eme*ume*...* Gure premisa erabat bestelakoa



1950eko hamarkadako kibbutzen argazkiak.

izan da: gai interesgarri bat geneukan, aktualitatearekin lotura zuzena duena, eta, era berean, aurrez landu gabea. Guk ikerketari heldu diogu, topatutakoa kontatzeko, bestelako anbiziorik gabe. Pentsa, mezua helarazi ziguten uanean, lehenbizi, badaezpada, elkarri idatzi genion, inor txantxetan ez zebilela egiaztatzeko!

Ez beti, baina gehienetan norbanako batek irabazi ohi du Tene Mujika beka. Elkarlanean jarduteko prest?

L.A.: Lau eskutara jardutearena prozesu naturala izan da. Azken batean, bion arteko berriketek egituratu zuten hasierako ideia hura, eta elkarrekin hartutako tortilla-pintxorik eta kaferik gabe, ez ginatkeen proiektua aurkezteko gai izango ere. Estilo, lan egiteko era eta erritmo desberdinak ditugu, baina hori, erronka baino gehiago, bestearen aurkatasunetikiko akuilu izan da orain arte. Azken finean, lagunak gara, eta badakigu bata besteari adarra jotzen, baina baita tira egiten ere.



Aranberri eta Sagarna Tene Mujika bekaren irabazleak. ELKAR

Zer kontu dezakezue zuen proiektuaren inguruan?

I.S.: 1950-1980 urteen artean euskal gizartearen segmentu politiko ezberdinek Israelen eta Palestinaren arteko gatazkari nola begiratzen zioten ikustea eta haren eboluzioa aztertzea da helburu nagusia. Gai zabala izanik, frankismoaren familia ezberdinek zuten ikuskera ikerketatik kanpo utziko dugu, horretan sakondu gabe. Baina ez da ahaztu behar Espainiak mundu arabiarrekin halako aliantza berezi bat garatu zuela; horregatik, Estatu espainiarrak ez zuten Israelekin harreman diplomatikorik ofizialki normalizatu 1986ra arte. Gu Frankismoari oldartu zitzaizkion eragile politiko ezberdinetan zentratuko gara. Euskal erresistentzia deitu diegu. Hasi ETA eta bere eszizioetatik (LKI, EMK...), EAE eta EAJtik pasa eta PSE eta ezker iraultzailean kokatzen ziren taldeak ditugu jomugan (EKE, ORT). Batzuk "estatalistak" izanaga-

"Gai interesgarri bat geneukan, aktualitatearekin lotura zuzena duena, eta, era berean, aurrez landu gabea"

tik ere, haien indarren hezur-muina Euskal Herrian kokatzen baitzen.

Arreta berezia jarriko diozue kultur munduari ere, ezta?

Bai, kulturaren ere jarriko dugu mira, euskararen auzian, hain zuzen. Euskararen alfabetatzeak iraultza moduko bat bizi zuen garai haietan. Euskararen batasunean edo euskalkien indartzean, non jarri behar zen indarra? Bada, batasunaren aldekoak nagusitu eta eredu bila hasi ziren. Eta horra hor Ben Yehudak; hebreera modernoa berpiztu zuen, eta nola gainera, seme-alabek gurasoei irakatsi zieten hizkuntza horrek ikaragarritzko alfabetatze tasak zituen. Hainbat euskaltzalek fenomeno hori aztertzeari ekin zioten

eta eredu bezala hartu zuten, handik metodologia ezberdinak ekarritz.

Bestalde, hirugarren ildo bat ere garatu nahi dugu. Egun pentsaezina dirudien arren, garai hartan makina bat euskaldun kibbutzetara joan ziren sozialismo erreala praktikatzera. Kibbutzak jabetza pribaturik gabeko komunitate kolektiboak dira; eta Sobietar Batasunaren argia itzaltzen zihoan hartan, Israelen garatzen ari ziren esperientzia autogestionatu haiek aukera erreal bat garatzeko bidea eskaintzen zuten. Zoritzarrez, haiek jakin gabe, Israelen proiektu kolonizatzailearen parte ziren, kibbutz asko Nakbaren ostean (1948an) palestinarrek hutsik utzitako etxaldeen gainean eraiki baitziren.

LPSan zentral eolikoak ezartzeko hautatutako gune posibleen zerrendatik kanpo geratu da Itziar

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala azken fasean da, Jaurlaritzak hainbat herritar eta eragilek aurkeztutako alegazioei erantzun ostean. Hasierako proposamenean zentral eoliko eta fotovoltaiko handiak ezartzeko izendatu zituzten Aukeratutako Kokapen Eremuen (AKE) artean zen Andutz-Txobillar gunea, baina zerrenda horretatik kanpo laga dute orain. "Pozik, baina zuhurtziaz" hartu dute berria Itziarko Auzo Udaleko ordezkariak.



Arantza Egaña eta Xabier Laka auzo udaleko ordezkariak.

Jaurlaritzak 2023ko maiatzean eman zion hasierako onarpena Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari (LPS), eta alegazioak aurkezteko 45 eguneko epea jarri zuen. Joan den urriaren 31ra arte ez zen argitaratu, ordea, hasierako proposamenari aurkeztutako alegazioei erantzuna ematen dien txostena. Eta abenduaren 20an onartu zuten LPSaren behin-behineko bertsioa, dokumentuan zenbait aldaketa eta zuzenketa tekniko egin ondoren. Behin betiko onartzen denean (martxoaren amaierara arteko epea dagoela aurreratu dute Jaurlaritzatik), lurralde plan sektorialak arautuko du Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetan energia berriztagarrien azpiegiturak non eta zein baldintzatan kokatu ahalko diren.

Bada, behin-behineko txostenaren arabera, Itziarren ez da egongo 5 megawatteko potentzia izango lukeen aerosorgailurik eraikitzeko aukerarik. Izan ere, ondorioztatu dute haize-errotek kalte larriak eragingo lizkieketela inguruan bizi diren saguzar-koloniei, espezie babestuak direlako. Hortaz, LPSaren behin-behineko bertsioan instalazio eolikoetarako aukeratutako eremu posibleen zerrendatik kanpo laga dute Andutz-Txobillar.

Aixako kobazuloan zortzi kiroptero espezie aurkitu dituzte azken urteotan, eta horietako hiru dira espezie babestuak, egoera kalteberan daudelako: Schreibers



Lurralde Plan Sektorialari alegazioak aurkezteko deia eginez, Gipuzkoako Mendiak Aske plataformako kideak Itziarren batu ziren 2023an. GMA

saguzarrak (*Miniopterus schreibersii*), Bechstein saguzarrak (*Myotis bechsteinii*) eta Ferra-saguzar mediterraniarrak (*Rhinolopus euryale*).

Itziariko Auzo Udaleko ordezkariak positibotzat jo dute saguzarren babeslekuak "babeste" aldera hartu duten erabakia. "Ebazpenaren oinarria Jaurlaritzak eta hiru aldundiek adostutako lurpeko babeslekuetan eta eraikinetan bizi diren kiropteroak kudeatzeko plan bateratuan dago. Hori aintzat hartuta aurkeztu genuen LPSaren hasierako bertsioaren aurkako alegazioa, eta pozik gaude kontuan hartu dutelako". Dena den, Xabier Laka batzarkidearen hitzetan, "zuhurtziaz" hartu behar da berria: "Badi-rudi gurean ez dela momentuz neurri horretako proiekturik egingo, hala dio behintzat txostenak, eta, guk dakigula, ez da antzeko beste proiekturik aurreikusten. Baina ez dago bermatuta etorkizunean bestelako plangintzarik proposatuko ez dutenik". Gaineratu duenez, bestalde, "parke eolikoa gauzagarria izan aurretik, enpresa batzuk konexio eskubideen baimenak eskatzen hasita zezudela jakin dugu. Harritu egin gaitu eskabide horiek alegazioak aurkezteko epearen barruan egin direla ikusteak, eta are deigarriagoa da ezezkoa jaso dutela jakitea, sare elektrikoaren gainkarga argudiatuz".

"Ezustean"

Udal entitate txikiko agintariak azaldu dutenez, azaroaren erdialdean izan zuten Jaurlaritzaren asmoen berri. Denbora asko zeramaten zain, baina azken erabakiak "ezustean" harrapatu zituela aitortu dute. "Debako Udaleko ingurumen teknikariak helarazi zigun Jaurlaritzak urriaren 31n argitaratutako dokumentua, eta saguzarren kontuarengatik Andutz-Txobillar gunea aukeratutako kokapen eremutik kanpo geratzen

Behin-behineko txostenaren arabera, ezingo da 5 MW-eko potentzia izango lukeen aerosorgailurik ezarri Itziarren

Haize-errotek espezie babestu izendatutako saguzarrei kalteak eragingo lizkieketela ondorioztatu dute



Bechstein saguzar bat. GILLES SAN MARTIN/FLICKR

"Pisu handiagoa izan zezaketen alegazioak ez dituzte aintzat hartu, eta horiek baztertzea harrigarria da"

zela ondorioztatu zuela aipatu zigun", azaldu du Arantza Egaña auzo udal alkateak.

Orotara, 4.387 alegazio aurkeztu zizkioten LPSari. Alegazio gehienak norbanakoez eta gizarte eragileek egin zituzten. Dena den, LPSak zuzenean eragiten dien erakunde publikoek — EAEko hiru foru aldundiek eta udalek, besteak beste—, baita enpresek ere, aurkeztu zituzten txostenak. Alegazio ia guztiak baztertu dituzte.

Jaurlearitzak emandako erantzunak interpretatzeko orduan, nolana ere, hainbat "zalantza" izan dituztela aipatu du Egañak. "Euskarazko bertsioan ez zen batere argi geratzen proiektua baztertuta zegoen ala ez; gaztelaniazko eta euskarazko bertsioa ez zetozen bat. Kexa jarri on-

Berriztagarrien alde daudela berretsi dute auzo udaleko ordezkariak, baina LPSak planteatzen duen eredu energetikoarekin ez datozela bat azpimarratu dute

doren, dudaren bat izanez gero, gaztelaniazkoa nagusitzen dela jakinarazi ziguten".

Jaurlearitzak alegazioei emandako erantzunaren berri emateko helburuz, pasa den abendua-ren 19an batzar irekia egin zuten Itziarren. "Hilabete inguru eman genuen egitasmoa gurean ez zela gauzatuko baieztatzen, eta ez genuen publiko egin nahi izan ziurtatu arte", azaldu du Lakak. "Bere garaian egin genuen bezala, geneukan informazioa herritarrekin partekatu nahi izan dugu oraingoan ere".

Bizilagunek ere berria "pozik eta harriduraz" hartu dutela gaineratu du batzarkideak. "Oso pozik daude, momentuz ez delako parke eolikorik eraikiko, baina harrituta ere bai, gu bezala, irizpide gisa saguzarrei buruzko alegazioak soilik hartu direlako kontuan. Pisu handiagoa izan zezaketen alegazioak, aldiz, ez dituzte aintzat hartu, eta horiek baztertzea harrigarria da. Besteak beste, txostenean diote ez dutela Geoparkean parte eoliko bat eraikitzeke inolako bateraezintasunik ikusi; Lurralde Plan Estrategikoaren proposamenak ez duela eraginik erantzun dute". Debatik eta Itziartik ia 300 alegazio aurkeztu ziren guztira.

"Sentsazio gazi-goza"

Bestalde, auzo alkateak ohartarazi du LPSan Debarrenerako aurreikusitako gainontzeko proiektuek aurrera jarraitzen dutela, "eta hori jakiteak sentsazio gazi-gozaarekin utzi gaitu".

Bide batez, energia berriztagarrien alde daudela berretsi dute auzo udaleko kideek. "Berriztagarrien aurka gaudela leporatu izan digute noizbait, eta argi esan nahi dugu behar-beharrezkoak iruditzen zaizkigula. Hori bai, ez gatoz bat plan honek eskaintzen duen eredu energetikoarekin, ez da justua", nabarmendu dute.

Gabon giroko egitarau betea

Gabonen bueltan ekintza ugari egin dituzte, beste behin ere, Deban eta Itziarren. Ohiko hitzorduak izan dira protagonista, hala nola kalejirak, musika eta dantza emanaldiak, herri lasterketa jendetsuak, haurrentzako eta nerabeentzako tailerrak eta jolasak, mendi irteerak eta bestelako aisialdi jarduerak. Egitarauaren baitan izan dira Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, Zoro Feria eta Errege Magoen kabalgata ere, urteroko ohiturei eutsiz. Urte zaharra amaitzeko eta berriari ongietorria egiteko ospakizunetan ateratako irudi batzuk bildu ditugu hemen; argazki gehiago daude herri komunikabidearen webgunean.



Argazki galeria
berriketan.eus atarian



Gabon eskea Itziarren.



Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera Deban.



Bandaren urte berriko kontzertua. JOXERRA LARRAÑAGA



Zuhatza-Kolore Anitzek Bizkaia Park Abenturara egindako irteera.



Zoro Feria.



Debako Errege Magoen kabalgata.

“Emaitzarekin pozik gaude, batez ere horrelako proiektu bat aurrera atera dugun lehenengo aldia izan delako guretzat”

MARTINA SOTO ETA JOSEBA URKIRI • Debrass Band



2018ko maiatzean sortu zen Debrass Band musika taldeak *Debrass, Vol. 1* kaleratu du, bere lehen diskoa. Taldeak egindako kanta propio batez eta beste talde batzuen lau bertsiotz osatutako albuma da, erritmo eta musika genero ezberdinak uztartzen dituen, eta jadanik entzungai dago Interneten. Grabaketa prozesuan gustura aritu zirela eta kontzertuak emateko gogoz daudela aitortu dute taldekideek.

Hamar kidek osatzen dute musika taldea; Itziarkoa da bat, eta Debakoak gainontzekoak, eta jadanik aski ezagunak dira inguruotan. Urteak daramatzate metalezko haize-instrumentuekin eta perkusioarekin doinu dantzagarriak sortzen eta kontzertuak ematen, oholtza gainean nahiz kalerik kale. Antza izan dezakeen arren, ez da ohiko txaranga bat, 'brass band' bat baizik, eta genero horren baitan, besteak beste, funk eta jazz estiloetara hurbiltzea gustuko dutela diote. Lehen diskoa kalera-tu duten honetan, Martina Soto tronbonistarekin eta Joseba Urkiri helikoi-jotzailearekin izan da *Berriketan*.

Aurkeztu dezagun hitz gutxitan Debrass Band. Nola definituko zenukete taldea?

Martina Soto: Gaur egun gure inguruan entzun ohi ditugun musika moldeetatik nolabait alden du eta zerbitu bitxia eta originala jorratu nahi izan duen lagun talde bat gara. Besteak beste, funk, tekno edota dance pop doinueta murgildu gara.

Nolakoa izan da orain arteko ibilbidea?

Joseba Urkiri: Taldea 2018ko maiatzean sortu genuen.

Zertxobait lehenago Iratz Fernandez eta Jon Egaña taldekideek Lucky Chops talde amerikarrak metroan egindako emanaldi baten bideoa ikusi zuten eta antzeko "mobida frikiren bat" egitea planteatu zuten. Ideia Julen Aldalurri eta niri komentatu ziguten (Skaleak taldea utzi berria genuen), eta Debako bandako kide genituen Iñigo Egañari eta Martinari esan genien... eta hor hasi zen guztia. Lehen emanaldia Debarock Kolektiboaren disko aurkezpenean izan zen, Plaza Zaharrean, eta urtebeteren ostean, oholtzan aritzeaz gain, kalez kale jotzera irteteko aukera genuela ere ikusi genuen. Erre-fortzu bezala beste taldekide batzuk batu zitzaizkigun, eta emanaldiak eskaintzen hasi ginen erabat indarberrituta, bai oholtza gainean, bai kalez kale, gaur egun arte.

Zenbat kide zarete uneotan?

J.U.: Gaur egun, hamar lagun gara taldean: Iñaki Gonzalez eta Kerman Rico (perkusoia); Nerea Aizpurua, Luken Urkiri eta Julen Aldalur (tronpetak); Iñigo Egaña (saxo baritonoa); Jon Egaña (saxo tenorea); Unax Zarrara (saxo altua); Martina (tronboia) eta neu (helikoia). Aldalur Itziarkoa da, eta gainontzeko guztiak debarrak.

M.S.: Gu biok hasieratik gaude taldean, baina osieran



aldaketak izan dira urte hauetan eta jende ezberdina pasa da taldetik. Adibidez, hasieran Jon Amutxastegi ibili zen, Nerea Aizpurua duela bi urte sartu zen... Eta orain egunerokotasunean egon ez arren, Iratz Fernandez emanaldi ezberdinetan laguntzeko eta jotzeko prest izaten dugu, beraz, taldekoa dela esan genezake, kar-kar. **Proiektuaren bueltan adin ezberdineko musikariak bildu zarete. Badago loturarik zuen artean hasieratik edo taldea sortu aurretik, adibidez? Zerk batzen zaituzte?** **M. S.:** Debako Musika Bandak batu gintuen hasiera batean. Taldeko gazteena izanda, nik 14 urte nituen Debrass sortu zenean; taldekideek, berriz, 19 urtetik 26 urtera bitartean. Adin desberdintasuna handia izanik, oso zaila izango litzateke bandatik kanpo elkar ezagutzea. **Ezjakinak garenontzat... Zer da zehazki 'brass band' bat?** **J. U.:** Funtsean, metalezko haize-instrumentuz osatutako musika banda bat da. Oinarria Ameriketara, New Orleansen, kokatzen dugu. Bertan, biztanleria afroamerikarrak Gerra Zibilak ekarritako miseria eta tentsioei buelta eman nahian, bere kultura eta nortasuna aldarrikatu nahi zuen. Motzean azalduta, horrela hasi ziren kalez kaleko emanaldi musikatuak eta gerora ezagutu

“Deban sekulako esker ona jaso dugun arren, dirudiena baino zailagoa da musika formatu hau herritik kanpo zabaltzea”

ditugun jazz eta gainontzeko genero afroamerikarren aitzindarizat hartuak izan direnak. Hala ere, brass band formatuak bere baitan eboluzio garbi bat ere jasan du eta guk egiten duguna "benetako" brass band batetik oso urrun egongo da "purista" batentzat, kar-kar.

Hortaz, ohiko txaranga edo banda baten formatuarekiko ezberdina al da zuena?

M. S.: Instrumentuei dagokienean txaranga baten oso antzekoa izan arren, kontzeptua erabat ezberdina da, batez ere estilo aldetik. Txarangek ez dute helburu izaten abesti propioak sortzea eta funtsean abestien bertsio fidelak interpretatzen dituzte, hau da, ez dute



gehiegi aldatzen kantu originalaren forma eta estiloa. Brass band batean, berriz, berezko abestiak izateaz gain, bertso bat egiten denean, melodia oinarri gisa hartzea eta eremu propiora eramatea da helburua. Brass band terminoaren barruan hainbat modalitate daude, baina gure kasuan helburua funk eta jazz estiloetara hurbiltzea da, armonia eta erritmoekin jolastuz edo zati eta solo desberdinak asmatuz.

Metalezko haize-instrumentuetatik eta perkusiotik haratago, ba al dago beste mota batzuetako tresnertzako lekuri zuena moduko brass band batean ?

M. S.: Brass band taldeen ezaugarri funtsezkoena da haize-instrumentuz osatuak egoten direla, baina, nire ustez, beti egon behar gara aukera berrietara irekita. Agian, beste instrumentu batzuk sartuz gero, taldearen kontzeptua ere aldatuko litzateke, baina proiektu propioa izanik, ez dugu molde finko batzuetara mugatu nahi.

'Debrass, Vol. 1' diskoa aurkeztu berri duzue. Zer dakar lan horrek?

J. U.: Albumak bost abesti dauzka, lau bertso eta propio bat. Bertsoiegi dagokienean, nahiz eta gure originalak ez izan, moldaketak eta konponketak guk egin ditugu eta hainbestetan jo ostean, gureak balira bezala sentitzen ditugu. Albuma *Zartada* abestiarekin hasi nahi izan dugu. Batetik, propio bakarria izanik, dagokion ikus-

garritasuna eman nahi diogulako, eta, bestetik, abestiak berak diskoa irekitzeko aproposak diren doinuak transmititzen dizkigulako. *Girls, Wreckin', Ilargia* eta *Brassing Free* dira albumeko gainontzeko abestiak.

Sarritan, taldearen aurkezpen txartela izan ohi da lehenbiziko diskoa. Hala al da oraingoan ere?

J. U.: Diskoan erritmo eta musika genero ezberdinak entzun daitezkeenez, taldearen aurkezpen txartel moduko zerbait dela esan dezakegu. Hala ere, ez zait iruditzen intentzio horrekin eginiko ezer denik. Diskoa grabatzera bultzatu gaituen benetako arrazoia gure abestiak soinu onarekin entzuteko gogoia izan da. Koteraino geunden mugikorren bitartez grabatutako audio eskasez, kar-kar.

M. S.: Bestalde, ilusio handia egiten digu gure konponketak plataforma digitaletan eskuragarri egoteak eta inguruko jendeak beren egunerokoan entzuteko aukera izateak. Emaitzarekin pozik gaude, batez ere horrelako proiektu bat aurrera eraman dugun lehenengo aldia izan delako guretzat. Askok ikasi dugu prozesuan, batez ere hanka-sartze guztiei esker, eta horregatik, emaitzaz harro egon arren, etorkizunean era produktiboago eta adeitsuago batean lan egitea dugu helburua.

Diskoan, eta bestela ere oro har, genero musikal ezberdineko abestien moldaketak egiten dituzue, zuen



estilora ekarriz. Zer eduki behar du kanta batek 'debrassbandatua' izateko?

M. S.: Hainbat gauza izaten ditugu kontuan. Hasteko, moldaketa egiten duenari gustatu egin behar zaio abestia. Nola eraldatu pentsatzeak, originala belarriz idazteak eta gero azken aldaketak egiteak denbora dezente darama, horregatik da funtsezkoa kantuak motibatzea. Bestalde, talde instrumentala gara, ez dugu abeslaririk, eta horrek ere asko baldintzatzen du aukeraketa; melodia errepikakorra bada, rap zatiak baditu, edo musikalki ez badu interes handirik, abestiak ez du balio, letra kentzean erakargarritasun handiena galtzen baitu. Eta, era berean, publikoarengan ere pentsatu behar da. Jendea disfrutatzen ikusteak asko poztzen gaitu, eta horretarako abesti ezagun asko jotzen ditugu emanaldietan.

Nor arduratzen da moldaketak eta instrumentu ezberdinentzako konponketak egiteaz?

J. U.: Jon Egaña eta Martina arduratzen dira. Jon aritzen hasieran eta lan ikaragarria suposatzen zion, baina azken urteetan Martinak, taldeko musikari tituludunak, laguntzen dio. Hamar kide izanda, ahal den heinean eginbeharrak banatzen saiatzen gara, eta gainontzeko zortziok argi dugu ez dugula ezer egiterik kontu horietan.

Non entzun daiteke disko berria?

J. U.: Albuma plataforma digital guztietan dago entzun-

Laburrean:

Gustuko talde bat?

J. U.: Moon Hooch.

M. S.: Youngblood Brass Band.

Gomendatuko zenukeen kanta bat?

J. U.: *Moon Zooz*. Moon Hooch eta Too Many Zooz taldeen kolaborazio bat da.

M. S.: Balkan Paradise Orkestraren *Cotnes*.

Musikari erreferente bat?

J. U.: Nat McIntosh helikoi-jotzailea.

M. S.: Marshall Gilkes tronbonista eta konpositorea.

Kontzertu bat emateko leku kuttun bat?

J. U.: Debako txosnagunea.

M. S.: Deba. Eta horrez gain, Tolosa.

Ikusi duzun kontzerturik onena?

J. U.: Brigada Criminal-ena, Ekinez Jaialdian.

M. S.: Marshall Gilkes-en kontzertua, Betera herrian.

gai eta Youtubera pare bat bideoklip igo ditugu. Hasiera batean, disko luzeago bat grabatzeko asmotan joan ginen estudiora, baina azkenean bost abestiz osatutako album bat sortu dugu eta formatu fisikoan ateratzeko motzegia zela iruditu zitzaigun. Hala ere, aurrera begira saiatuko gara beste sorpresaxoren bat ematen; beraz, adi egon! Bestalde, fisikoan atera ez dugun arren, diskoaren azalari dagokion errekonozimendua eman nahi diogu eta espero dugu jendeari guri bezainbeste gustatu izana Martin Odriozolak egindako lana.

Aurrera begira, zer asmo duzue? 'Debrass Vol. 2' entzuteko aukerarik izango al dugu, adibidez, epe laburrean?

J. U.: Deban sekulako esker ona jaso dugun arren, dirudiena baino zailagoa da musika formatu hau herritik kanpo zabaltzea. Euskal Herriko jai herrikoietan gaur egun mugitzen den musika moldearekin bat egitea kostatzen zaion musika formatu bat izanik, garai batzuetan zaila izan da kontzerturen bat lotzea. Hala ere, hemendik aurrera emanaldiak lotzeko eta kontzertuak emateko gogoz gatoz. *Vol. 2*-ren inguruan, ez dugu ezer konfirmatzeko, baina grabatzen egon ginen asteburu hartan hain gustura geratu ginen, non zerbait gehiago grabatzeko premia sentitzen baitugu. Beraz, izan daiteke laster berriren bat edo beste izatea.

Iazko salmenta kopuruari eutsi dio bidezko merkataritza bultzatzeko dendak



Ohi bezala, Kooperazio Taldeko kideek elkartasun denda zabaldu zuten Eguberrietan eta, azaldu dutenez, ekimenak harrera ona izan du oraingoan ere. Balorazioa egin ondoren, dendak iazko salmenta kopuruari eutsi diola nabarmendu dute boluntarioek.

Arduradunak "oso gustura" agertu dira eta eskerak eman dizkiete herritarrei, "beste behin izandako jarreragatik eta egitasmoan parte hartzeagatik".

"Jende pila bat etorri da dendara zerbait erostera eta eskerrak eman nahi dizkiegu hemendik pasa diren guzti-guztiei. Bildutako diru horri esker, posible izango da martxan ditugun zenbait proiektutara baliabide gehiago bideratzea".

Hiru egitasmo

Jakinarazi dutenez, aurten lortutako irabaziak hiru proiektutara bideratuko dituzte. "Irabazien heren bat Ukrainara bidaliko dugu, Txernobyngo zentral nuklearraren hondamendiak kaltetutako eremuan dagoen Orane herriko premiei erantzuteko. Botikak eta hotzari aurre egiteko artilea bidaltzeko eskatu digute aurten, eta horretarako erabiliko dugu dirua".

Adierazi dute "irabazien heren bat baino zertxobait gehiago" Valentziako elkarte bati bidaliko diotela, urriko hondamendiak kaltetutakoei laguntzeko helburuz. "Eta gainontzeko irabaziak Maliko Togo eskualdeko Saint Paul eskolara bideratuko ditugu —erantsi dute—. Urtero bezala, dirua behar handiena duten ikasleen artean banatuko dute".

Ongizate emozionala eta autozainketa lantzeko bigarren tailerra abian da

"Osasun mentalak eta emozionalak gizabanakoen ongizatean duen garrantziaz" jabetuta, autozainketa eta ongizate emozionala lantzeko tailerra antolatu du berriz ere Debako Udalak. Iaz egin zuten lehenengoz (maiatzetik ekainera), eta 2025eko urtarriletik apirilera bitartean egingo da bigarren. "Parte-hartzaileei hausnarketarako, autoestimua indartzeko eta egunerokoan baliagarriak diren tresnak ikasteko aukera eskaintzea" da ekimenaren helburu nagusia.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, harrera ona egin zaio aurtengo deialdiari ere. Edukiera mugatua zuen ikastaroak, eta eskaini diren leku guztiak bete ondoren, hamasei laguneko taldea osatu dute.

Oraingo honetan ere, Saioa Garmendiak (Astigarraga, 1979) gidatuko du ikastaroa; 25 urteko esperientzia dauka zaintza esparruan, eta aditua da on-



gizate emozionalen, coach pertsonalean, emozioen kudeaketan, adimen emozionalaren garapenean, eta *mindfulness*-ean.

Tailerra doakoa izango da eta sei saio praktiko izango ditu orotara; urtarrilaren 28an izan da lehenbiziko saioa eta, aurreikuspenen arabera, apirilaren 8an egingo dute azkena.

“Osasunarentzat gauza gutxi dago hoberik oholtza batera igo eta nahi duzuna egin ahal izatea baino”

PETTI • Musikaria



Otsailaren 15ean Deban izango da Juan Luis Perez Mitxelena, Petti ezizenez ezaguna den musikaria (Bera, 1973). Kontzertu akustikoa emango du, bakarka, Kultur Elkartearen (20:00etatik aurrera). Hitzordua aitzakia hartuta, bere ibilbide artistikoaz eta beste zenbait kontuz mintzatu da elkarrizketan.

Beratarra oso gazte murgildu zen musikagintzan. 16 urte zituen bere herriko Noise Hole taldean hasi zenean, eta geroztik beste hamaika proiektu eta saltsatan sartuta ibili da. *Berriketan*-i azaldukoaren arabera, taldearekin zuzeneko disko bat grabatzen dabil orain, baita estudioko lan bat prestatzen ere, besteak beste. KulturEkin egitasmoaren baitan Deban eskainiko duen zuzenekoan, aldiz, bakarrik igoko da oholtzara. Gitarra akustikoa lagun, orain arteko ibilbide musikal luze eta oparoaren lagin bat erakustera dator Kultur Elkartera. Dagoeneko salgai daude kontzerturako sarrerak.

Kontzertuz kontzertu zabiltza azkenaldian. Zer nolako zuzeneko eskainiko duzu Deban?

Ordu eta laurden inguruko emanaldia izango da. Bertan, nire diskoetako kantekin eta bertsoekin osaturiko errepertorioa jotzeko asmoa dut. Folk-bluesa eta rocka nahastuko ditut gitarra akustiko baina elektrifikatuekin, hainbat soinu-efektu sortzen dituzten pedalen laguntzaz.

Izango da oraindik ezagutzen ez zaituenik ere, Petti. Zer esango zenieke emanaldira anima daitezen?

Ez dut uste nire burua saltzeko egokiena naizenik, baina bluesa maite duenak gustura entzuten du nik euskaraz egiten dudana. Springsteen, Johnny Cash,



Arg.: LORALDIA



Mark Lanegan, Laboa edo Ruper bezalako kantariak maite badituzu, nik egiten dudana ere gustura entzungo duzu agian. Gitarra lantzeko modu berezia erabiltzeko joera ere badaukat, afinazio arraroekin, eta kantu melodiko zein esperimentalak jorratzea ere gustuko dut. **Bakarlari gisa etorriko zara Debara, baina beste batzuetan taldean aritzen zara. Artista bezala zer ematen dizu bakoitzak?**

Taldearekin kantu rockeroagoak jotzen ditut, elektrikoak gehienbat; areto handietan jotzeko aproposagoak dira. Bakarka, aldiz, alde akustikoagoa lantzen dut; entzulearekin konexio handiagoa duela iruditzen zait, hurbiltasunarengatik. Egia esan, bakarka aritzean askoz ere libreago sentitzen naiz, eta gehiago inprobisatzen dut. Taldean, dena prestatuta egoten da; bakarka, ordea, ez da beharrezkoa eskema jakin bati jarraitzea, eta, entzulearen erreakzioaren arabera, kanta batzuk edo beste batzuk jotzeko aukera daukat.

Areto txikia da Kultur Elkartekoa. Espazio handi eta ezagunetan aritu zara, baita txiki eta intimoetan ere. Zer nahiago duzu?

Biek dute beren xarma, eta errepertorioa ere guztiz ezberdina izaten da; ni neu gustura aritzen naiz batean nahiz bestean. Areto txikietan, bakarka aritzean, zailagoa izaten da. Ez dut taldearen babesik izaten, eta

“Ez dut uste nire burua saltzeko egokiena naizenik, baina bluesa maite duenak gustura entzuten du nik euskaraz egiten dudana”

“Nire ustez, oso une onean nago. Lasaiago bizi naiz eta askoz ere zentratuago nabil egiten dudanarekin”

kantak prestatzeko orduan lan handiagoa egin behar izaten dut. Akatsen bat eginez gero ere, askoz nabarmenagoa izaten da bakarrik egotean.

Azkar esaten da, baina dagoeneko mende laurden baino gehiago daramazu oholtzaz oholtza. Zer ematen dizute zuzenekoek?

Beti ikasten dut zerbait eta gauza berriak probatzeko aukera izateak gogo gehiagorekin aritzeko grina ematen dit. Gitarra soil batekin hasi nintzen, baina orain ezberdin afinatutako gitarra ezberdinak erabiltzen ditut, pedal sorta batekin melodiari askotariko efektuak emanez. Horrek guztiak esperientzia guztiz ezberdinak izatera behartzen nau, eta ilusioa ez da inoiz desagertzten zuzenekoetan. Askatasuna eta terapia dira niretzat; osasunarentzat gauza gutxi dago hoberik oholtza batera igo eta nahi duzuna egin ahal izatea baino. Lasaitasuna eta bakea ematen du, bizi-kalitatea hobetuz.

16 urterekin Berako Noise Hole taldearekin musikagintzan murgildu zinenetik, zer nolako eboluzioa izan du Pettik artista edo musikari gisa?

Garaian garaikoa [irribarre artean]. Orduan, asmo bakarra parranda egitea zen. Punk-rocka egiten genuen, eta asteburua ondo pasatzeko aukera ezin hobea izaten zen; ez zuen orain egiten saiatzen naizenarekin zerikusirik. Orain, berriz, mezuak zabaltzen saiatzen naiz, nire



Arg.: GARAROCK

bizitzaren ikuspuntua azaltzen eta niretzat ongi dagoena bultzatzen. Helburu bat dauka musikak niretzat. **Sorkuntzan murgilduta zabilta beti. Orain arteko ibilbidean, hamahiru disko kaleratu dituzu zure izenean eta beste hainbatetan ere parte hartu duzu kolaboratzaile gisa. Musikalki edo artistikoki, zer momentutan zaude orain?**

Nire ustez, oso une onean nago. Lasaiago bizi naiz eta askoz ere zentratuago nabil egiten dudanarekin. Lan bat ateratzerakoan, segurtasun osoa izan behar dut, egindako horretaz ez damutzeko. Horregatik, denbora asko hartzen dut gauzak nahi bezala prestatzeko, zuzentzeko eta baloratzeko. Kantu guztiek zentzu bat izan dezaten saiatzen naiz; eta, ez bada hala, abestia baztertu eta beste bat sortzen saiatzen naiz. Ez ditut abestiak diskoa betetzeko egiten; nahiago dut diskoan kantu gutxiago sartu, betetzeko kanturen bat sartu baino. Egia da hori guztia psikologikoki ere ordaindu behar izaten dela, baina azken emaitza ikustean, urduritasunak eta buruko min guztiek jira eman... eta plazer terapeutiko bihurtzen dira.

Gitarra lagun, askotariko proiektuetan parte hartzeko aukera izan duzu urteotan. Azkenaldian, adibidez, Ana Galarragarekin batera aurkeztutako 'Frankenstein agurgarria' errezitaldi saioekin ere bazabiltza.

Zer moduz doa esperientzia?

Oso polita izaten ari da. Hamalau bat saio egin ditugu dagoeneko, eta beste batzuk lotuta ditugu datozen hilabeteetarako. Egia esan, niretzat oso erraza da lan hau egitea, lanik zailena Anak egiten baitu: berak idatzi zuen testua eta berak darama emanaldiaren pisua, nik kantuekin lagundu besterik ez diot egiten. Batek baino gehiagok azaldu digun bezala, oso emanaldi polita, interesgarria eta zentzuduna da. Euskal Herriko hamaika txokotan aurkeztea espero dugu, benetan merezi duelako. Feminismoa, gerra zibila, literatura eta bizitzako pasarteak uztartzen dira bertan, eta benetan lagungarria suertatuko zaio bati baino gehiagori. Dударik ez daukat horrekin, hori baita daukagun asmoetako bat.

Etorkizunari begira, ba al duzu bestelako erronka edo proiektu zehatzik esku artean?

Bai, datozen hilabeteetan kaleratuko den zuzeneko disko bat grabatzen ari naiz taldearekin; nire kanturik rockeroenak eta indartsuenak izango dira bertan. Gainera, estudioko disko berri bat prestatzen, Anarekin *Frankenstein agurgarria* aurkezten, Balerdi Balerdiarekin disko berria lantzen, eta zuzeneko emanaldiak eskaintzen ere jarraitzen dut. Beraz, aspertzeko denbora gutxi daukat.



Barreteriaren bosgarren saioa egingo dute otsailean

Iazko hitzorduek izandako harrera ona ikusita, 2025ean ere umorezko bakarriketa saioen hileroko dinamikarekin jarraituko dute Kultur Elkartearen. Otsailaren 21ean, ostiralez, egingo dute stand up probalekuaren bosgarren saioa, 20:00etan, eta sei umoregile ariko dira oholtzan: Gaizka Sarasua, Joxek Farra, Aimar Sorazu, Jone Bengoa, Lander Varona eta Manex Astigarraga. Sarrerak Internet bidez eros daitezke, bost euroan labur.eus/barreteriadeba5 estekan.



Arbil Elkarte Sozialak lau ekintza iragarri ditu otsailerako

Abiatu du urtea Arbil Elkarte Sozialak. Hainbat ekintza egin ditu urtarrilean, eta bi hitzaldi eta bi irteera izango dira otsailerako prestatu duen egitarauan. Adibidez, hilaren 6an "lapurretak, iruzurrak eta etxebizitzaren okupazioa prebenitzeko" solasaldia egingo dute, eta hilaren 20ko saioan "hauskortasuna eta mendekotasun funtzionala" izango dituzte hizpide. Otsailaren 13rako, berriz, sagardotegira irteera antolatu dute eta hilaren 27an Donostiara joango dira, bertan ibilaldia egitera.

Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPOZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

Mintzalagunen hiru talde osatu dira Deban, baina egitasmoan izena emateko aukera dago oraindik ere



Mintzapraktika taldeak martxa betean daude urriaz geroztik Euskal Herriko hamaika txokotan, tartean, Deban, eta astean behin hitzordua jartzen dute *bide-lariak* eta *bidelagunak*, euskaraz aritzeko.

Udako atsedendaldiaren ondoren, urriari abiatu zuten 2024-2025eko ikasturterako egitasmoa. *Eta euskaraz egiten badugu?* lelopean ireki zuten izen-emate epea

eta, taldeak osatu ondoren, martxan daude asteroko saioak. Mintzalagunen hiru talde daude, gaur-gaurkoz, herrian: horietako bi astelehenetan elkartzen dira (bata 15:30ean eta bestea 16:00etan), eta hirugarrena ostiraletan, 11:00etan. Talde bakoitzean euskaraz ondo moldatzen den pertsona bat (*bidelaguna*) hizkuntza maila hobetu nahi duten lauzpabost lagunekin (*bidelariak*) elkartzen da, ordubete inguruz.

Doako programa

Hiru talde sortu dituzten arren, antolatzaileek gogorazi dute izen-ematea ikasturte osoan egoten dela zabalik (doan); partaide berriak aurrez osatutako taldeetan sar daitezke eta, beharren arabera, talde berriak sortzeko aukera ere aztertuko dute antolatzaileek.

Zuhatzak kudeatzen du ekimena Deban, Taupa euskaltzaileen mugimenduari elkarlanean. Bertan parte hartu nahi dutenek euskara elkartearen bulegora jo beharko dute (943 19 13 83). Bestela, Internet bidez ere eman daiteke izena, koordinatzailea@zuhatza.com-era idatzita edo labur.eus/zuhatza_deba estekan sartuta.

Euskaraldiaren herri batzordea eratu dute

Hizkuntza-ohituren inertziak astindu eta herritarrek euskara gehiago erabiltzeko urratsak ematea eta entitateek euskaraz bizitzea ahalbidetuko duten neurriak hartzea. Euskararen erabilera aktibatze mugimendua elikatzea. Eta tokian tokiko euskalgintza aktibatzea eta lankidetzan aritzea, praktika linguistikoak erraztuko dituzten neurriak sustatu eta euskal hiztunak martxan jar ditzaten. Horiek dira, besteak beste, euskararen erabilera sustatzeko 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo den Euskaraldiaren laugarren edizioako erronka nagusiak. *Elkar mugituz egingo dugu* lelopean egingo da aurtengo ekimena.

Lehenengo pausoak eman ditu dagoeneko Debak, beste hainbat udalerriren antzera. Izan ere, Euskaraldian parte hartzeko izena eman zuen udalerriak eta herri batzordea osatzeko lehen bilera egin dute jada, urtarilaren 30ean. Laster zehaztuko dituzte hurrengo batzarretarako deialdiak ere.



Euskaraldiko sustatzaileek adierazi bezala, "batzordearen helburua Debako euskaltzaleak elkartzea da. Elkar ezagutzeta, indarrak batzea... eta nork daki, agian luzera begira herrian eragingo duen talde egonkor bat sortzea ere bai". Horregatik, azpimarratu dute batzordea irekia dela eta "denontzako lekua" dagoela bertan. Horiek hala, taldera batzeko deia egin diete herritarrei. Batzordean parte hartzeko interesa dutenek Euskaraldiaren telefonora deitu (688 87 24 89) edo deba@euskaraldia.eus helbide elektronikora idatz dezakete.

Hamazazpi emakumek hartuko dute parte pala ikastaroan



Aurtengoan ere, Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubak pala ikastaroa antolatu du, emakumeek kirol horretan trebatzeko aukera izan dezaten.

Zehaztu dutenez, ikastaroa otsailaren 6an abiatu eta maiatzaren 29an amaituko da, eta deialdiak harrera ona izan du, hamazazpi emakumek parte hartuko baitute bertan. "Zumaiar batzuk ere badira tartean, baina gainontzeko partai-

deak Debakoak dira. Pozgarria da halako ekimenek herritarren interesa pizten dutela ikustea. Izan ere, ez badugu inor erakartzen edo jendeak ez badu parte hartzeko interesik azaltzen, orain arte egindako ahalegin guztia ezerezean geratuko litzateke", adierazi dute antolatzaileek.

Bi txandatan banatuta

Iratxe Astigarraga debarrek gidatuko du ikastaroa. Antolatzaileek azaldu dutenez, "pala ezker eta eskuin eskuarekin kontrolatzen ikasiko dute parte-hartzaileek. Ohi bezala, teniseko pilotarekin eta paleta arinekin arituko dira".

Aldats pilotalekuan egingo dituzte saioak, ostegunetan, bi txandatan banatuta: 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Lehenengo txandan hamar lagunek parte hartuko dute, eta bigarrenean, berriz, beste zazpik.

Zabalik dago Lasturko VIII. Mendi Martxan izena emateko epea

Martxoaren 16an egingo da Izarraitz Bizirik elkarteak eta Itziaroko Auzo Udalak antolatutako Lasturko VIII. Mendi Martxa. Antolatzaileek iragarri dutenez, partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeran: luzea —28 kilometrokoa, 1.800 metroko desnibel positiboarekin—, edo motza —21 kilometrokoa, 1.100 metroko desnibel positiboarekin—.

Izen-ematea zabalik dago jadanik *kirolprobak.com* webgunean. Izena martxoaren 6ra bitartean ematen dutenek 18 euro ordaindu beharko dituzte, eta kamiseta bat jasoko dute opari. Egunean bertan ere izango da izena emateko aukera, baina kasu horretan 25 euro ordaindu beharko dira; horretarako, interesa dutenek irteera gunean jarriko duten mahaira jo beharko dute, 06:45etik 07:30era bitartean. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, gehienez, 400 pertsonak parte hartu ahal izango dute proban.

Gero eta ikasle gehiago joaten dira Burdin Kurutzek antolatutako mendi irteeretara



Burdin Kurutz mendi taldeko kideak pozik azaldu dira 2024. urtearen balorazioa egiterakoan. Izan ere, ikasleentzako antolatzen dituzten irteeretan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela nabarmendu dute.

Hileroko txango horiek dinamizatzen dituen Joxe Mari Altzibarrek azaldu duenez, hain zuzen, 60 pertsonatik gora batzen dira orain irteeretan. "Azken bizpahiru urteotan, gehienez ere 50 lagun izatera iristen ginen, ozta-ozta. Orain, ordea, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetakoa haurren guraso talde bat

txangoetara etortzen hasi da, eta nabarmen handitu da partaideen kopurua". Taldea "gaztetu" egin denez, ikasleen adinera egokitutako joan-etorriak antolatzen dituztela aipatu du Altzibarrek. "Antzeko irteerak egiten ditugu, baina 10 kilometro ingurukoak gehienez, eta ibilaldia zailtasun maila errazekoak izaten dira orain".

Ikasturte berriarekin batera, irailan ekin zieten txangoei, eta antolatzaileak gustura daude orain arte egindako hitzorduekin. Otsailaren 16an egingo dute hurrengoa, Aitzorrotzera. Gogorarazi bezala, "ikasleak mendian gustura ibiltzea eta esperientzia errepikatuzko gogoz geratzea da irteeren helburu nagusia".

Ismail Chkhickeckh eta Oihana Kortazar nagusitu dira Debako XI. Herri Krosean



Irabazleek erabateko nagusitasuna erakutsi zuten urtarrilaren 19an jokaturako XI. Herri Krosean. Gizonzkoetan, Ismail Chkhickeckh bilbotarra helmugaratu zen lehen postuan; 31 minutu eta 56 segundoan osatu zuen 10 kilometro inguruko ibilbidea. Handik ia minutu batera, bigarren postuan, Younnes Asselli zaldibartarra sailkatu zen (32.51), eta Mikel Aguirrebeña debarrak osatu zuen podiuma (33.03).

Emakumezkoetan, berriz, Oihana Kortazar elgetarrak jantzi zuen txapela; 35 minutu eta 58 segundo behar izan zituen helmugaratzeko. Idoia Nogales debarra bigarren izan zen (39.26), azken hiru urteotako postua errepikatuta. Eta hirugarren postuan Sandra Martinez gasteiztarra sailkatu zen (41.12).

Parte-hartze errekorra

Deba Xtreme Kirol Taldeko kideek emandako datuen arabera, 166 korrikalarik eman zuten krosean parte hartzeko izena, baina horietatik 152k lortu zuten helmugara iristea.

Antolatzaileak pozik daude datuarekin eta parte-hartze errekorra hautsi dutela azpimarratu dute. "Orain arte, 120 partaideren bueltan ibiltzen ginen, baina aurten aurreikuspen guztiak gainditu ditugu. Gainera, parte-hartzaileen artean bertako herritarren presentzia handitu dela nabaritu dugu. Proba herrikoa izanda, oso pozik geratu gara zentzu horretan".



94 emakumek eman dute izena Gaztelekuaren Lilatoiko taldean

Otsailaren 23an jokaturako da 35. Lilatoia emakumezkoen lasterketa ezaguna Donostian, eta bertan izango dira, beste urte batez, Debako eta Itziarko korrikalariak ere. Izan ere, aurten 94 emakumek parte hartuko dute Debako Gaztelekuak lasterketarako osatu duen taldean.

Iaz 119 emakumek parte hartu zuten Deban herri mailan sortutako taldean —bigarren talde handienaren saria jaso zuen lasterketan—. Hortaz, Gaztelekuo kideen esanetan, "oraingoan ere gertu ibili gara. Iazkoarekin alderatuta, gutxiago izango gara aurten, baina kopuru ederra da eta benetan pozten gaitu. Oso balorazio positiboa egiten dugu, Deba bezalako herri batean hainbeste emakume batzea ospatzeko modukoa da eta. Eskerrik asko izena eman duzuen guztioi".



Mendipe Elkarteak irabazi ditu 47. Urteberriko Idi Probak

Urtarrilaren 18an Euskal Jolasen indarrak neurtu zituzten lau idi pareen artean Mendipe Elkartekoa nagusitu zen. Maruri-Jatabeko abereek 43 plaza eginda lortu zuten garaipena. Errezilgo Bixkiak izan ziren bigarren, Oiartzungo Artola hirugarren, eta Arroako Etxetxo laugarren.

Urtarrila / Otsaila

URT. 31 (OSTIRALA)

ELKARRETARATZEA

19:30 Euskal preso eta iheslarien giza eskubideen alde. Foruen Plaza.

OTS. 2 (IGANDEA)

HEZEGUNEEN NAZIOARTEKO EGUNA

10:00 Hondakinen bilketa. Casacampoko begiratokia. **Ondoren** padurak ezagutzeko bisita gidatua. Casacampotik Artzabalera.



MILA IDIAKEZI OMENALDIA

12:00 Aldats pilotalekua.

ZINEMA

17:00 Haurrentzako zinema: 'Museoaren zaindariaik'. **19:00** 'Anatomia de una caida'. Kultur Elkarte.

OTS. 3 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

OTS. 6 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

11:00 'Segurtasuna, iruzurrak, okupak'. Kultur Elkarte.

OTS. 7 (OSTIRALA)

ODOL ATERAKETAK

16:30-20:30 Txanda eskatzeko edo zalantzak argitzeko: 612 40 21 03. Luzaro ikastetxea.

KONTZERTUA

20:00 Aitor Huergo eta lagunak. Itziariko Burugorri. Sarrera 5€, bertan salgai.

OTS. 8 (LARUNBATA)

KALDEREROEN ENTSEGUA

11:30 Musika eskolako dantza gela.

OTS. 9 (IGANDEA)

IPIUIN KONTAKETA

17:30 Debako Kontalarien ekimenez. Ispiluen gela.

ZINEMA

19:00 'Green border'. Kultur Elkarte.

OTS. 11 (ASTEARTEA)

TAILERRA

18:00 Ongizate emozionala. Agirre jauregiko Ispiluen gela.

OTS. 13 (OSTEGUNA)

IRTEERA

Lizeaga sagardotegira. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez.

OTS. 14 (OSTIRALA)

EUSKAL HERRIKO MUSTXAPELKETA

21:00 Afaria. **22:30** Debako kanporaketa. Zalburdi taberna.

OTS. 15 (LARUNBATA)

KALDEREROEN ENTSEGUA

11:30 Musika eskola.

KULTUREKIN

20:00 Kontzertua: Petti. Kultur Elkarte. Sarrera 5€.

OTS. 16 (IGANDEA)

MENDI IRTEERAK

08:00 Aia-Pagoeta-Aia. Irteera autobusez. **08:30** Irteera autobusez (haurrentzat). Estalitako paseoa.

ZINEMA

19:00 'Fuera de temporada'. Kultur Elkarte.

OTS. 17 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

OTS. 20 (OSTEGUNA)

HITZALDIA

11:00 'Mendekotasun funtzionala'. Kultur Elkarte.

OTS. 21 (OSTIRALA)

BARRETEGIA

20:00 Umerezko bakarrizketak. Kultur Elkarte. Sarrera 5€: labur.eus/barretegiadeba5.

OTS. 22 (LARUNBATA)

KALDEREROAK

19:00 Kalejira Agirre jauregitik abiatuta.



OTS. 23 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 'Los niños de Winton'. Kultur Elkarte.

OTS. 25 (ASTEARTEA)

TAILERRA

18:00 Ongizate emozionala. Agirre jauregiko Ispiluen gela.

OTS. 27 (OSTEGUNA)

TXANGOIA

Donostiara. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez.

KALEJIRA

17:00 Musika eskolako ikasleak. Agirre jauregitik.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

BURGOA

Otsailak 7, 8, 9, 17, 18, 19, 20.

ZALDUEGI

Otsailak 3, 4, 5, 6, 21, 22, 23.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

BURGOA Otsailak 1 eta 8.

ZALDUEGI Otsailak 15 eta 22.

OHIKO ORDUTEGIA

Asteleheneetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (09:00-12:30)

Itziariko botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01



Eskelak



Mila Idiakes Altzibar

Lankide bikaina, zaintzaile goxoa
eta guztiokin eskuzabala.
Bihotz-bihotzez, eskerrik asko! Agur, Mila.

Mikel Deunako langileak



Hildakoen eskelak, urteurrenak eta oroigarriak argitaratzen dira atal honetan.

Horietako bat jarri nahi izanez gero, 632 04 33 22 telefonora deitu edo idatzi berriketan@berriketan.eus helbidera. Eskela guztiak berriketan.eus/eskelak estekan egongo dira ikusgai.

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Deba Musikal	943 19 20 16
Debako Udala	943 19 28 40	Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Udaltzaingoa	689 12 58 89	DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	KZgunea	943 02 36 29
Bake epaitegia	943 19 23 53	Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Gaztelekua	943 19 27 62
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Correos	943 19 17 99
Turismo bulegoa	943 19 24 52	Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Mankomunitatea	943 70 07 99
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Haurreskola	943 19 20 81	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Kiroldegia	943 19 22 62	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55	Debegesa	943 82 01 10
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54	Euskotren	944 33 33 33
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27	Lurraldebus	900 30 03 40
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06	Debako Parrokia	943 19 14 97
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Mendata BHI	943 89 92 65	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



Deba

Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.




PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS:183/12

BA AL ZENEKIEN...

...Antonio Banderas protagonista duen film bat Deban grabatu zutela?

1989an estreinatuta zen Juan Miñonek zuzendutako *La blanca paloma* filma. Antonio Banderas da protagonista nagusia eta berekin batera Emma Suarez eta Francisco Rabal ere agertzen dira, besteak beste, filmean.

1970eko hamarkada bukaeran eta 80ko hamarkada hasieran gailurrean egon zen *zinema kinki* izenaz ezagutzen den generoaren baitan kokatu dezakegu *La blanca paloma*. Genero horretako filmek garaiko testuinguru sozial eta politikoa islatzen dute, batez ere hiri handietako periferiako auzoetako gazteen errealtatea ardatz hartuta. Lan horietan maiz azaltzen diren gaiak dira, besteak beste, marjinalitatea, delinkuentzia, gatazka politikoa, drogaren zabalkundea edota errepresio poliziala.

La blanca paloma-ren kontakizuna Bilbon kokatzen da, baina Deban grabatutako irudiak ere ageri dira bertan. Itur kalean zegoen eraikin batean grabatu ziren, hain zuzen ere, bi eszena. Grabazioak aurrez *Batzoki zaharra* eta gerora (2000tik 2003ra) gaztetxea izango zen eraikineko frontoian egin zituzten. Irudiek 6 bat minutuko tartea hartzen dute guztira, eta jai giroa islatzen dute. Filmean Debako hainbat herritarrek eta musika bandak ere parte hartu zuten, estra moduan.

Ea ezagunen bat aurkitzen duzuen.



Ikusi Deban grabatutako irudiak:
labur.eus/antoniobanderasdeba



'La blanca paloma' filmeko fotograma bat.



TAXI LIZENTZIA
SALGAI

Eibar | Erretiroagatik

682 289 446

**Diru-sarrera ziurtatu
eta frogagarriak**

Bezero-zorroa

Irudiko autoa lizentziarekin
batera salduko da



Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan






AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

*Hondartza ondoan
Urte gustuan zabalik*

Nafarroa Plaza - Tel.: 943 192 576
20820 DEBA



ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com



ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak



Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba
T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Ikasi
ingeleza
atzerrian

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



www.antxustegi.com



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAMIKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PARERA



BAINUGELA



BURDINDEGIA



ERAIKUNTZARAKO
MATERIALAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industrialdea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692